

## Donostiako 57. Zinemaldia → Zinemira



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

## Imanol Uribe » Zinema zuzendaria

Euskal Herriko egoera politikoa gaitzat hartuta, 80ko hamarkadako hiru film esanguratsu zuzendu zituen Imanol Uribek, eta atzo Zinemira saria jaso zuen, Euskal Zinemaren galan. Hemen industria sortzearen alde lan egin zuela azpimarratu du.

# «Behar zen tokian eta unean egoteko zoria izan nuen»

**Alberto Barandiaran** Donostia

Zinemira saria *Burgosko prozesua* (1979), *Segoviako ihesa* (1981) eta *Mikelen heriotza* (1983) filmengatik jaso zuen atzo Imanol Uribek (El Salvador, 1950). Angel Amigo, Javier Agirresarobe, Pedro Olea eta beste batzuekin batera, 80ko hamarkadaren hasiera horretan euskal gaiak lantzen eta euskal industria bat garatzen ahalegindu zelako. Hiru film horiek, gainera, hainbat aktore eta teknikarientzat ibilbide profesionalaren hasiera izan ziren.

Sari asko jaso ditu Uribek, tartean Urrezko Maskorra, *Dias contados* (1994) lanagatik, eta atzoko «beste bat» izan dela dio. Beste bat, besterik ez. «Sariak gozatzeko dira. Ospatu, eta hurrengo egunean ahazteko».

**Euskal zinema zuzendari gisa aurkeztzen zaituztenean, zeure burua identifikatuta ikusten duzu?**

Bai, ni euskal jatorrikoa naiz, nire senide guztiak Bizkaikoak dira, nahiz eta El Salvadorren jaio eta gero Madrilen ikasi nuen.

Alde horretatik, euskal zinemagiletzat hartzeak ez nau harritzen.

**Eta Mikelen heriotza-gatik gogorazten zaituztenean, hau da, duela hogeita bost urte egindako film baten-gatik ezaguna zarela esaten dizutenean, zer sentitzen duzu?**

Nire filmografiaren eta nire bizitzaren parte bat da film hori. Ondo iruditzen zait.

**Egin duzun filmik garrantzitsuenak da?**

Tira, denak dira garrantzitsuak. Egia da hasierak beti direla esanguratsuak, markatzen zaituzte. Garai hura oso berezia izan zen, eta, gaurtik ikusita, behar zen tokian eta behar zen unean egoteko zoria izan nuen sentazioa daukat. Eta aprobetxatu egin nuela aukera hori. Profesionalki garai bikaina izan zen.

**Eta oso berezia, gainera. Badirudi ilusio berezia zegoela Euskal Herriarekin lotutako gaiak filmatzeko, eta jende askok lan handia egin zuela horretarako. Hala izan zen?**

Bai, trantsizioaren garaia zen, eta Madrilen lan egiten genuen batzuek erabaki genuen hona etortzea, euskal zinemaren aldeko

plataforma moduko bat sortu eta hemendik lan egin ahal izateko. Alde horretatik, sormen handiko garai berezia izan zen. Oso erakargarria. Ilusio handia zegoen gauza berriak egiteko. Gero, bakoitzak bere aldetik jo zuen.

**Diозun plataforma horri dagokionez, zer zenuen buruan?**

Ez zegoen ezer bereziki egituratuta, baina hainbatek, banaka, hemendik lan egiteko erabakia hartu genuen. Pedro Olea Euskal Herriari etorri zen filmak ekoiztera, eta *Akelarre* filma egin zuen. Gu, alegia ni, Javier Agirresarobe eta Gonzalo Berridi, elkartu eta ekoiztetxe bat sortu genuen. Hemendik filmak ekoizteko ilusioa zegoen, ez baitzen horrelakorik. Film guztiak Madrilen ekoizten ziren orduan. Orain filmak hemen ekoizten dira; beraz, esan daiteke ordukoa hasiera izan zela.

**Eta aktore asko orduan hasi zen lanean.**

Bai; eta teknikari asko; batez ere, teknikari asko. Orain Madrilen ari dira lanean, baina denak *Segoviako ihesa* edo *Mikelen heriotza* filmetan hasi ziren.

**Film horiek aurrera ateratzeko errazak izan ziren?**

Film guztiak zailak dira egiten, baina esan behar dut ilusio handiz egin zirela. *Mikelen heriotza*-k, esaterako, aurrekontu irriagarria zeukan; gutxienekoa ere ez genuen, eta horrelakoak ateratzeko ilusio handia jarri behar duzu, ez dago beste irtenbiderik.

**Segoviako ihesa eta Burgosko prozesua lanetan, gai korapilatsuak ukitu zenituen, noiz eta 70eko hamarkadaren amaieran. Arazoak izan zenituen?**

Ez, filmatzen duzunean ez ohi dira arazoak sortzen, jende asko dutilako inguruan eta lehen esan dudan ilusioa dagoelako. Eta ia isilpean filmatzen genuelako, publikizitate handirik gabe. Arazoak gero etorri ziren, estreinaldietan. *Burgosko prozesua*, esaterako, zinemaldi honi esker atera zen aurrera. *Segoviako ihesa* bezala.

**Sumatu zenuen film horiek zer bait berezia zirela?**

Horixe sumatu nuela. Zinema txarteldegi guztietan ilara luzeak izaten ziren, ikusmin handia zegoen.

**Neurri batean, sortzeaz zegoen zinema baten hastapentzat zeukan jende askok.**

Hori izan zen sentazioa. Nahiz eta *Burgosko prozesua* Madrilen ekoizti zuten. Kooperatiba bat egin genuen, eta dirua eskatu ge-

«Hemen bertan filmak egiteko ilusioa zegoen, ez baitzen ezer, dena Madrilen ekoizten zen»

«Zinema politikoa modan zegoen orduan, baina gaur egun ezer ez dago modan»

nien senideei, lagunei... *Segoviako ihesa*, berriaz, Angel Amigok ekoizti zuen.

**Horietako baten bat kutunago duzu besteak baino?**

Ez. Aipatzen ditugun hiru horiek bata bestearen ondorio dira, bata bestearen atzetik etorri zirelako. Gainera, niretako dokumentaletik fikziora jauzia egiteko modua izan ziren hirurak. Horregatik, oso naturala izan zen dena.

**Zinema politikoa, oso politizatutako garaietan.**

Bai, zinema politikoa modan zegoen orduan. Gaur egun ezin gozatzeko film horiek egin, ez dagoelako modan. Tira, orain modan ez dago ezer. Baina garai hartan zinema politikoa bazuen bere ikuslea, eta jendeak uste zuen egin beharra zegoela.

**Gaur egun, gutxietsita dago.**

Ez da egiten; askoz konplikatuago da horrelako proiektuak aurrera ateratzea.

**Madrilera itzuli zinenean, saiatu zinen hortik aldentzen, ezta?**

Zinema zuzendari politikoaeren etiketa jarri zidaten, nahiz eta ni ez nengoan horrekin obsesionatuta. Beste mota bateko zinema egin nahi nuen, eta hortik sortu zen *Adios, pequeña*. Zinema beltza zen, Bilbon giroa, baina ahalegindu nintzen Bilboekin zerikusirik zeukan nabardura guztiak erazten. Oker bat izan zen, huts egindako filma.

**Hiru film horiek markatu zituzten?**

Badakizu, jendeak dena sailkatzeko ohitura handi samarra dauka, eta harritu egiten da beste zer edo zer egin nahi duzula esaten duzunean, baina niri beti gustatu zait erregistroa aldatzea.

**Orain, zer interesatzen zaizu?**

Askotan, filmak huskerietatik sortzen dira. Eleberritaren irakurritako zer bait, berri bat... Orainxe berean, ez daukat ezer garbi eskuetan, eta edozein gai izan dezaket intereseko, baina garbi daukat ez dudala neure burua errepikatu nahi. Film batekin lan egitea bi urteko lana da, gutxienez. Bi urte istorio bera buruan, eta ase amaitzen dut. Horregatik gustatzen zait aldatzea.